

Storytelling

edo zelan bete edukiz eta kontatu erraz Bermeoko turismo eskaintza.

Hiru zenbaki magikoa da, ipuinetan (batez ere ahoz) ondo funtzionatzen duena. Ez da kasualitatea hiru izatea santuak eman zituen pausuak Gaztelugatxeraino, eta hiru ontziek irlaren aurrean ematen dituzten bueltak, hiru olatu erraldoiak, eta abar.

Egin dezagun ariketa hori: orain arteko DAFO eta batzarretan agertu diren gauza guztiak hiru multzotan antolatu eta sintetizatu hiru kontzeptutan, erraz gogoratzeko. Hiru ideia horiek izan daitezela turismoa gurera erakartzeko hiru argudio pisutsu. Hau da, zergatik etorri beharko luke turistak Bermeora? Honako hiru arrazoi hauengatik:

- 1 – Bizkaiko itsas-paisaiarik ederrena duelako (Gaztelugatxe, adb.).
- 2 – Bizkaiko itsas-historiarik zaharrena duelako (arrantza-patrimonioa).
- 3 – Bizkaiko egunpasa osoenak dituelako (jana, poteoa eta jaiak -hiru-).

1 · Itsas-paisaia ederrena. Lehenengo multzoan sartzen dira Gaztelugatxe (kanpora begirako sinbolo nagusia) eta Matxitxako, eta baita herrigunetik hurreago dauden Rompeolasa, Tonpoia eta mendi-ibilbideak ere, itsasoa beti bistan. Multzo honi dagokionez, ahalegin handiena aurreko batzarretan aipatu duguna da: Gaztelugatxe Bermeogaz lotzea. Proposamen batzuk badauzkagu: web posizionamendua, begiraleku-infogunea, urtean behin belaontzi estropada.

2 · Itsas-historia zaharrena. Patrimonioa, zentzurik zabalenean. Historia, monumentuak, industria, euskara... Hemen Aritzek egindako lana oso ondo dago, eta proposatutako ibilbide gidatuak eta kontatzeko istorioak marabilla bat dira. Atal honekin lotu beharko genuke, baita ere, herritarrei historia-istorioen ezagutza erraztea, datorren bisitariari kontatzeko gaitasun gutxieneko bat izan dezan edonork. Pozarren esplikatzeko, harrokeria barik. Adibidez, Bermistorianek ez du lortzen (oraingoz) herritarrei ezagutza zabaltzea; hitzaldiak beteta egoten dira, baina kaleko juergan inor ez da enteratzen.

3 · Egunpasa osoena. Aurretik aipatu ditugun bi argudio indartsuei hirugarren atal hau batzen zaiolako da egunpasa konpletoena Bermeokoa. Dastamen-gozamenarekin zerikusia duten hiru azpiatal sailkatu ahal ditugu.

- Arrantzagaz lotutako gastronomia. Ostalaritza eta kontserba enpresen eskaintza ikuspegi horretara bideratzen asmatu behar dugu, elkarlanean: jatetxeko menuak, tabernetako pintxoak, kontserba produktuen otzara-souvenirrak.
- Poteoa. Inguruko herrietan baino gusturago poteatuko duzu Bermeon. Zergatik? Horretarako giroa egon ohi delako (pintxopotea, asteburu goizak, opor egunak...). Eta Gernikan ez dauden bi poteo-leku ditugulako: alde zaharra eta portua.
- Jai egutegi zabala eta kontzertu agenda. Jai batzuei atarramendu handiagoa ateratzen asmatzea geratzen zaigu. Adibidez, Izaro Bermeorena dela argi uzten dugu urtero; baina jaia norena da? Elantxoberena eta Lagako txiringoarena. Hori berreskuratu behar dugu (portuko bafleek erakutsi dute bidexka bat). Kontzertuen kasuan, ez da broma, ia astebururo daukagu zerbait herrian, eta hiru areto dauzkagu: Kafe Antzokia (eskualdeko handiena), Beleza Malandra ateneoa (beste inon ikusiko ez dituzun taldeak), eta Hermanoetako Kapilla (kontzertu autogestionatuak). Bakoitzak bere izaera du eta agenda gorabeheratsua izan daiteke, baina bakoitzari buruzko linkak erabiliz, nahikoa kontatu dugu, eta turista perfil sorta zabalago bat erakartzeko arrazoiak gehituko dizkiogu goian aipatutako gainontzeko argudio zerrendari.

Beste era batera laburbilduta. Bermeon zer daukagu?

1 – Itsasoa. Argazkiak. Kontenplatu.

2 – Historia. Istorioak. Ezagutu.

3 – Gastronomia. Jaiak. Dastatu.

Marketinaz kontutxo bat. Argi dago komunikatzen asmatu behar dugula, baina "hortako komunikazio bide guztiak erabili behar doguz" baino oinarrizkoagoa da argi edukitzea zer kontatuko dugun, denok konpartitzea mezu berbera. Gero etorriko diren web, mapa, ibilbide, eskuorri, cd, kamiseta, postal eta abarrak mezu hori indartzera badatoz, ondo. Bestela, sakabanatu eta indarra galtzen du helarazi nahi dugunak.

Ikusi dugun bezala, euskarriak sobran daude Turismo Bulegoan, baina gero eta argiago daukagun mezua ez du batek berak ere kontatzen.

Beraz, lehenengo pausua izan da erabakitzea zein den helburu estrategikoa: Gaztelugatxe Bermeogaz lotzea. Lotu bakarrik ez, Gaztelugatxe ikustera doazenak Bermeora erakartzea.

Bigarren pausua da adostea zer kontatuko dugun, ze mezu konpartituko dugun denok, zein argudio indartuko ditugun, helburu hori lortzeko. Zergatik etorri behar dute Bermeora? Galdera horren erantzuna adostu, formulazioa sinple eta gogoratzen erraz.

Hirugarren pausua da argudio horiei sinesgarritasuna eta ikusgarritasuna ematea. Hau da, argudio batzuek oraindik badute zer landu, benetan konpletoak izateko; eta noski, kontatuko dugun hori jendearengana iritsi behar da, aurkitu egin behar gaituzte, google-n lehen postuetan agertu, etorri, gozatu, eta bueltan mezua indartzen duen souvenirra eroan, bueltatzeko gogoz, lagunei beraiek ere kontatzeko guk komunikatu diegun gauza bera.

Komunikatzea ez da bakarrik testu, irudi, diskurtso; komunikatzea da portuan giroa aurkitzea; komunikatzea da ibilbideetan txakur kakarik ez zapaltzea; komunikatzea da paper-eskuorri-mapa-testu-pila zorroan baino esperientzia ahaztezina gogoan eroatea.

Bukatzeko. Orain arteko batzarretan entzundakoa eta goian azaldutakoa mezu sinple eta gogoratzeko erraz batekin borobiltzeko, eslogan proposamena:

-Bermeon, eguerdia jaten dugu-

Oso-osorik. Begiekin, ahoarekin eta gogoarekin. Horrek esan gura duen guztiarekin. Bermeon ez da bazkaldu bakarrik egiten. Bermeon paisaiatz gozatu, poteatu, historia ezagutu, berbakera berezia entzun, arraina dastatu (ejem, ea egia den), eta jai egiten dugu (sarri). Goizetik gauera. Hori da Bermeoren eskaintza: egunpasa. Kontenplatu. Ezagutu. Dastatu. (Diskutitzeko idatzi dut esaldia, ez guztiz ziur nagoelako hori denik onena; egun bakarrean idatzitako hausnarketa da dena, barkatuko didazue atrebentzia).